

F. Arrate zenaren sermoietariko hiru, Eibarko euskaraz (1861-1869)

JUAN SAN MARTIN*

Hogeitaka urteak dira Eibarko Aginaga auzoko parrokian bertako jatorrien ikerketan aritu nintzelarik, uste gaberik paper zaharren artean, eskuizkribuzko sermoi sorta aurkitu nuela. Sermoion izenburuak gazteleraz zeuden, baina prediku guztia bertako euskaraz zen. Hartan lagundu zidan Jon Etxezarreta apaizak, garai hartan Aginagako San Migel Arkanjeluan erretore zenak esan zidan eskuizkribuok har nezazkeela, bestela galzorian ikusten zituenez. Hartu nituen, baina hitza emanez, Euskaltzaindiko artxibategira emango nituela.

Eskuizkribuon egilea, Frantzisko Arrate Mandiola zeritzan apaiz eibartarra, XIX. mende erdialdera (1861-1869. urteetan) Aginagako San Migel Arkanjeluaren elizan erretore zen. Aginaga, Eibarko auzoa izanik, Ego ibarretik bestaldera dago, Iparraldean mendiz handik, Artibai ibarrean kokatzen delarik, bertako urak Urko errekatik Barinaga eta Markina-Etxebarritik zehar Markina-Xemeinen Artibaira isuriz.

Bere lehen berri idatzia, “anteiglesia de Aguinaga” bezala agertzen da 1602. urtean¹. Gero, 1622.ean zer esanik eman zuen Valladolideko Chancilleriak elizetatik moja edo freirak (serorak) kentzeko agindua eman zuenean. Oraingo eliza 1755. urtean eraikia da. Lehengo zaharra ordea, bertatik hurbil, bere lau hormen barrutian hilerria duena zen nonbait. Honen ate inguruaren itxura kontutan harturik, XVI. mendeko egiturazkoa da. Baina, eliza berriaren barnean bada Andra Mari gotiko bat, XV. mendeko imajina noski². Ikerketa ondorioz eman nituen berrien erabera, gotiko zaharra edo erromanikoaren

* Real Academia Lengua Vasca. Euskaltzaindia.

¹ Gregorio de MUJICA, *Monografía histórica de la Villa de Eibar* (Irun, 1910), 196. or. Liburuaren 156-157. orrialdeetan berri gehiago ematen du.

² Fr. Pedro de ANASAGASTI, “Ntra. Sra. de Aguinaga”, *Aranzazu* aldizkaria (Mayo, 1971), 17-18.orrialdeak.

azkenaldikotzat jo genezake oraindik bertan gordetzen den bataio ponte le-
kuko harturik³. Erretaula nagusiko San Migel Arkanxeluaren irudi ederra
neoklasiko estiloduna da, eliza berria eraiki zen garaikoa, noski. Bestalde, bai-
ta ere esan beharra dut, Aginagako San Migelek, auzoaren beste hegalean San
Roman ermita duela bere babespean; XVI. mendeko egituraz, bere barnean
mende bereko Santa Ageda imajina polikromatuarekin, zeinek duen inguru
haitan debozio handia⁴.

Kalahorratik berezirik Gasteizko Apezpikutezia sortzean, 1862. urtean,
Franzisko Arrate eibartarra genuen Aginagako San Migel elizaren erretorea.
Garai haretan, Aginagak 42 auzokide zituen eta 210 arima, 750 errialeko
errenta jasotzen zuen auzokoen elkarkidetzan zuten garaia orokorretik⁵. Ei-
barko San Andres parrokia 8 apez laguntzailez hornitzen zen eta horietarik
gazteenak betetzen zuen, San Andresen bikaritzapeko izanik, San Migel Agi-
nagakoan ekonomo gisa⁶.

Aginagako San Migelen zerbitzari zen lekukotasuna ematen digu Sebas-
tian Insaustik *Las parroquias de Guipúzcoa en 1862* liburuaren 54-55 orrial-
deetan, baina liburu berean, huts egiten du ermiten zerrenda jartzean⁷.

Franzisko Arrate Mandiola Eibarren jaio zen 1832. urtean. Gurasoak ei-
bartarrak zituen, aitaren aldetiko aiton-amonak Bolibar (Gollibar) eta Zaldi-
bartik (Zaldia) etorriak izanarren, Mandiola bere amangandiko deiturak Ei-
barko antzinatiko jatorria adierazten digu.

F. Arrate Mandiolak, Kalahorrako Seminarioan egin zituen ikasketak.
Hogetalau urterekin, 1857. urtean, barnetegi ikastaroak bukatzeko diru la-
guntza eskatu zuen⁸, eta Eibartik izan zuen abegi onari esker lortu zuen.
Handik urtebetera apaiztu zen⁹. Bere karreraz Literaria Patrium Ministerio
irakur daiteke, meza emateko eta konfesatzeko, Gasteizko artxibategiko fi-
txan ageri denez.

Lorenzo Gisasolaren lekua bete zuen nonbait, zeren hori agertzen baita
1859an Aginagako erretoretzan, eta Frantzisko Arrateren izenik ez dugu aur-
kitzen 1861era arte. Gutierrez, 1873ra arte jarraitu zuen, D. Jesús Sanmiguel
Eibarko San Andresen erretore jauna zenak ziurtatu zidanez, eta une horie-
takoak ditugu Frantzisko Arrate Mandiolaren sermoiok.

Testua irakurtzeaz edonor ohar daiteke bizkaieraz idatziak daudela, Ei-
barko era jatorrez. Gainera, eibartarrok ohi bezala, erderatikako hitzak barra-
barra erabiltzen ditu, batere axolarik gabe. Neurri batean, bere ikastaroetako
erdal hitzak dira. Baina hala ere, zenbait aditz ilun gelditzen zaizkigu bere
grafiagatik eta, batez ere, ohiko laburpenengatik. Beroien transkribatzea ez
da erraza eibartarra ez denarentzat. Baina, niretzat ere ez da izan gauza erra-
za eta zalantzak hor gelditzen dira, atzetik (sic) jarriaz. Horregatik, argigarri,

³ J. SAN MARTÍN, "En torno a las primeras noticias y fundaciones de San Miguel de Aguinaga, en Eibar", *Bol. R. S. V. de los Amigos del País*, XXIX, 1973, 370-375. orr.

⁴ J. SAN MARTÍN, "La ermita de San Román de Eibar y la devoción a Santa Águeda", *Bol. de la R. S. V. de los Amigos del País*, XXXI, 1975, 585-589. orr. Eta *Gogoz*, (Donostia, 1978), 83-86. orr.

⁵ G. MUJICA, aipaturiko *Monografía histórica...*, 157. or.

⁶ G. MUJICA, aip. lib., 134. or.

⁷ Sebastián INSAUSTI, *Las Parroquias de Guipúzcoa en 1862* (Donostia, 1964), 54-55 eta 169. orr.

⁸ Ikus agiriak Kalahorrako artxibategian. Archivo Catedralicio de Calahorra, Ref. Sig. 11/ 124-47.

⁹ Gasteizko Apezpikutezian datorrenez, Sección de órdenes de Calahorra, leg. 124-47.

ondoko lerroetan zenbait adibide emango ditut, aditza bertan agertzen den eran, osaturik eta inoiz gipuzkerazko adierazpenez, edonork hobeto ulert ditzan. Hitz guti batzurekin ere hori egingo dugu, Eibartik kanpo hain ulergarri ez direnetan.

Bere letra ez da hain irakurgarria, ez garbiago egin ezinagatik, zeren sermoion artean agertzen diren zenbait gutunen zirriborroetan argi ikus daiteke ulergarri idazten ere bazekiela. Baina sermoiok bere predikuetarako eginak zirenez, entzuleak zituen gogoan; bizkor idatziak daude, hauek berak irakurtzeko eragozpenik ez zutelako. Dena dela, horri esker, lekukotasun zuzenak ditugu gure hizkera edo euskalki mota XIX. mende erdialdean nola erabiltzen zen ziur jakiteko. Beraz, lekuko fidagarriak deritzaiet bere eskuizkribuori.

Besteak beste, adibidez, eibartarrontzat hain arrunta den “fiesta”, inoiz “afariketarako” erabiltzen denez haurren “fiesta” denean, adinekoen haurkeritzat hartzen dugu; haur jolasa edo haurren jostatzea esan nahi du. Horregatik, seriooki hartu behar ez diren gauzak edo egintzak “afariketarakoak” edo “fiestakoak” dira gure argotean. Zeren, oroi, gipuzkerazko “festa”, Eibarren “jaia” dela.

Era hortako xehetasunak ematen nituen “Franzisko Arrateren sermoietarik bat, Eibarko euskaraz”, Euskaltzaindiak *Iker-6* alea, 1992an, Luis Villasanten jaunari omenez eskaini zioenean.

Testu horretan, oso gutxitan agertzen da **z**, gehienetan **s** erabiltzen duenez. Gaur egun, eibartarron ahozko hizkeran **z**-rik ez da bereizten eta soil-soilik **s** erabiltzen dugu .

Bada besterik ere. Testuan ageri denez, F. Arratek nonbait ez zuen bere garaiko euskal idazleen berririk eta gaztelerazko grafiaz baliatu zelarik, euskal fonetikako **xa**, **txa**, **tza** eta **tza** ez zituen bereizten eta guzti horien ordean **cha** soilik erabiltzen zuen. Hala ere, predikuetan, bere ahoskeraz gaur egungo eibartarra izango zen: **xa**, **txa** eta **tza**. Baina, seguruenik, gaurko eraz oinarriturik, **tza** hori ez zuen erabiliko, gaur egun ere erabiltzen ez denez.

Hurrengo, bizkaierazko **-gaz** atzizkia oso gutxitan erabiltzen du, maizenik, bere ordean **-quin** (**-kin**). Gaurko eibartarrok, zein bata eta zein bestea, igarri gabe era biok erabiltzen ditugu. Era hori noiztikakoa den lekukotzat har genezake. Gauza bera esan genezake “legetze”, gure letze eta lez erabilehengatik.

Aditzaren erabileran ere, Bizkai aldeko **deutsa**, eibartarrok laburpenez ohi bezala dakar **detsa** (bere testuan **decha**). Baina, aditz laguntzailea darabil, ez Eibarren hain arrunt erabiltzen dugun aditz trinkoa.

Besterik gabe, noan zuzen: *De luxuria, Iran los malos a los castigos eternos* eta *De misericordia* deritzaten bere hiru sermoietara.

1. DE LUJURIA

Gaurco Ebanjelioa presentaches, amar sarnochu, ceinchuec escachechen¹⁰ Jaunari euren osasuna. Jasochen daba¹¹ amarrac euren voza eta diadar, eta dia-

¹⁰ escachehen (estatzen zetsen), eskatzen zioten.

¹¹ daba amarrac (dabe).

dar eguiteche Jaunari: guera¹² maichua, euquisu gure piedadia. Salvadoreac esaechen: Juan saite eta agertu saite Sal.na (sic); eta juanic osatuac isan ciran sarniac emoten daben satartusuna corpuchian, considerauleique desonestidadi o loiquerichac eguiten daben imagina bat leguez guera animatan. Gaur eracuchico Dechet: 1º dudonedo (sic) loiqueriac galchescula hondria 2º ondasuna eta 3º arimia.

Vicio au da gustien artian dongueuna, ceinen jatorria Jangoicoan misericordia baric quenduco es lichaquesen. Jauna purificasino nire espenac! guisaisu nere mina, berbaldi baten ceinetan conbaitu biar doran, ceure garbitasuneco enemingoric gogorrena.

1º honra baco demononinoan orretara (sic) deshonoran. Cein da guizon viciotan dauanaren conductia? Ondo daquiche: danac despreciachen dabe, eta inoc es dau tratau gura beraquin. Ce esaten da nascagaista edo andracume libre bategaitic? Ce modutan beguri cheche? devituric bacueri leguez, meriu du izaten da berac despreciua. Icusi san Sa S. cemodutan tratachen daben Amonec Fan.r. Cenbat eta geichago aman eban ainbat eta gorroto gueiaigo izan. Llegauric achenic cuartotic eta iachera eta aguinduric criameri aitu eta bota eichela elitu bajo bat leguez. Begira ce modutan tratau izan dan Jezabel: Sinisteban¹³ ecartia guison estimacinua bera gana batez bere Jesen Israelgo erregeuana: onetara ipini autuan bere arpeguian colore gorri postisuac; bere burua edertasun difartaquin (sic) eta corpuza jasteco lujosaequin; orraitive¹⁴ berac cer dino Zeuc botaisu infame ori bentanatic; eta guero gura isanic enterrau, eciran topau asur bachuc baiño, vanic chacurrac corpuchan beste gustia. An dago Jezabel esateban¹⁵ viajeruac desprecioz auchiaquin. Au da a andracumia luguratuana ainbeste eguiscua eguinda eta cemozcitua (sic) ainbeste escandalo.

Guizon desonestac estira obeto tratauac izaten andrac baiño. Abenchac¹⁶ dira Campotic arche jacue errespetu apur bat euren aguiraciari baiña biochetic despreciachen dira eta beguirachen jacue ditu (sic) bacueri leguez pena edo pobrezan dagoz. Apuntachen dabe achaquin¹⁷ eta burla eiteche.

¡O. C.n Ceren icenic merecidu es dabenac! Esda y nisuc (sic) ce modutan dinuan San Pabloc saria Jaunan visilecua eta bera visi da cuetan (sic) Cemodutan bada, daucasue atreberencia austeco bicilecu ori edo pecatu eguiteco seuen corpuzan contra. Baguara Jaunac castigauco saituala.

2º ondasunac. hijo-prodigo... Auce da desonestuan suertia; gura dau mantenidu bere guiza harra; consumichen dan eta ondachen dan echia bere gastu safarretaco.

¡Oh cenbat familia ondachiera modu onetaco condutiagaitic! es angustian.

3º Vere arima. Jangoicuac dirausen vicioan zarchen jacon instantetic desonestueri, gueldichen dala alencaniza (sic) bat leguez, asbergina (sic) jausi

¹² guera (gu gera).

¹³ Sinisteban (sinisten eban), sinisten zuen.

¹⁴ orraitieve (orregaitik be), horregatik ere.

¹⁵ esateban (esaten eban), esaten zuen.

¹⁶ Abenchac (Aientzak).

¹⁷ achaquin (atzakin), atzarekin, beatzarekin.

zan bati, yansara (sic) J.n vicituric bere obligacino gustaquin cargu, enplio eta falizaco (sic) cuidauaquin dana astu eta abandonachen dau.

Bacarric desonestuac galchen ditu graciaco ondasunac, fedia ilunchen da bertan; esateraco ya es ditu sinisten religinoco misterichuac, prestachen da ostasun batequin bere pasinua conbatichen daben eguichetara. Oadidadia (sic) emetauta dago bere vion eta es dau amachen, espa (sic) cein da seme galduac vici izanic lujuriozamente ondatu eban bere echeco seniparte gustia eta alimentau eta vici biarra ez eban jarraichen artian; alanche acia lujurizaco pecatuaren vitartes, galchen dabe ceruco seniparte edo soriontasuna eta guitendiria digno vici izateco artian, guizonen artian baiño.

Esatechan beste demejura (sic) baten S Abc. (sic) bergina: ause zan bati, yausi sara? Jn. vici da bere gusto bichac berba baten gausen ondasunac dagos galduta bere pasino griña gaistuagandic. Ya echasu gelditu gausonic.

2. IRÁN LOS MALOS A LOS CASTIGOS ETERNOS.

JUANGOIA GAISTUAC CASTIGU ETERNUETARA

Es asiera eta es achen¹⁸ baco urte orren penchamentu terribleac, castigu eternala infernuan condenauendaco erreserbauta dagozenen penchamentuac, zan precisamente ilunchebana Dabit penitente dautuan (sic) espiritua, bildurchebana¹⁹ bere imaginac aina eta apurchebana²⁰ bere visicha. Pasachen caturan gau osoac loric ein ecinda eta egunas icustesan descolorido bildur eta isilic echetara, bajachen bere arpeguicha lurreraino, bustichera lurra bere negarrec min eta bere Palaciouan enchun eraguiten ebala bere boza, ulua triste, suspiro, bildur damu eta bere desconsueluequin, Oh eternidadia, orretara bildurtu eraguiten badechasu bere parcacinuan seguru euan Dabit bati, eta penitenciaco lutu eta negarretan bere vicichia pasacheban²¹ bati, cera bat bildurtu eraingo esaechasue²² eta bete sotines, Cain guiza on ilsailiari²³, Jezabel desonestueri; Acas injustueri Aman soberbiari, Baltasar sacrileguari eta Erodes desonestuari vici diranac da sordena eta euren delituen gozamenian. ¡Oh! eternidadia pensamentu misterioco eta sacona tragachen dabena idica gustian, sofocachen dabena idia gustia, sopusachen dabena interes guztia, amitatchen dabena inteligencia guztia bildurchen dabena imaginacino gustia, desconsolachen dabena biot²⁴ gustia daucana conciencia loicha Jangoicuaeren aurrian. ¡Oh! eternidade emon dechasun martiricheri tormentuetaco palma ederra virgineri Tentacinuetaco vitoricia, penatanlieri, negarrac garbicheco euren pecatuac su sara poblau dosuna mundua cristaus, desiertuac penitentes eta cerua elegidus. Gaur sartuconai²⁵ bada berba eguitera eternidade castigu osuagas vichen gainian, eta urtengo dau eracuchiric penaciagariri (sic) onec, oraindai denporia dan artian artu biogula²⁶ resolucinua vicichia muda-

¹⁸ achen baco (atzen bako), atzenik bako.

¹⁹ bildurchebana (bildurtzen ebana), bildurtzen zuena.

²⁰ apurchebana (apurtzen ebana), apurtzen zuena.

²¹ pasacheban (pasatzen eban), pasatzen zuen.

²² esaechasue (esan etsazue), esan deutzazue, esan diozute.

²³ ilsailiari (iltzailiari), hiltzailiari.

²⁴ biot (biar dot), behar dut.

²⁵ sartuconai (sartuko naiz).

²⁶ biogula (biar dogula), behar dugula.

checo eta aprobechacheco nedeucainoco graciaquin salbacinoraco, cergatic infernuan esango dan iraposiblia.

Da fedeco egun bat aguertua Jesucristo gure Jaunac San Pablori, arima gustiac urtechen daben instantetic corpuchatic ezango dala presentau a Jesusen tabanalian eta juicio partea dan baten urrengo jaucico dala sentencia, soriontasun edo castigu medecicha esan²⁷ dabena bere conducta on edo charragatic uniduta egonzan artian bere corpuchari. Cergatic bada Jesucristo es berberac esatastu ilteco demporan aberat gaistuan esala jusgau eta condenau izana, espada simplemente il zala eta sepultaua izan zala inpenunetara? (sic). ¡Ah! isiltasun orrequin aberat gaistuan juicioaren gainian. Jangoicuac aichen emon guran izan descu: Cein da corpuz illa danan destinata sepulturana a es ain besta (sic) baten borondatia gandic, dan corpuz illan condicinugadic; igualmente dirausco San Gregorioc arima sorprendidaru (sic) pecatuco estaduan eta eriochan graciara, urtechian corpuchetic es da condenau infernura sentencia divinu baten vitartes, espada arrastan bertara, bere gastaquerichen indarrac; aichen emotesen²⁸ gaistuac condenaurik bere tribunalian, dirigiducoida²⁹ burua macurturic espanac muturic, lochia arpeguichan eta bildurra biochian dabela, castigu eternuetara. ¡Ah! inpernuco iluntasunaren arguitasunian condenanuac ikustendan se bildurgarricha dan pecatua, cenbat alterachen desfigurana eta satarchen dan bere arima bere sabelian daruana³⁰; icusten dan infernuco pena eterna dala ofenditu daben grandeciandaco pena bacar justua eta proporcionana³¹ onen vistan considerachera dan infernucomeni jacon lecu bat lez, lecu dino Santa Catalinac ceñetan guichien eridaec daben ceruco arguisaren³² oinestarrri abrazadoriac, cergatic arguiorrec bere arguitasun miragarrichaquin botachen daben beste edocein lecutic, eta esdacha (sic) ichichen bere jarlecu eta echechat, espada castigu eternuetaco lecu. Orain bada mundu onetan justiciaren juezchia³³ bada alacua guisonen viochetan, icusten baida delitudunac atormentauric concienciaco remordimentua eta humillauric euren delituen orroriac dirigichen eurac bacarric carchelara, escachen euren juraua eta ineducidu ezan daben castigua archen gracia bat lez, gueraturic contentachera ino sentencia condenan aciocuaquin; igualmente condenauac bueltan dauca arguitasun bildurgarrira icusten dan osotasun gustian bere biocheco pecatu bilurgarriac; es dau icusten beragan obra onen oñachia, espada alcontrario gustia charra eta arrastauric gorroto eta desprecioco sentaueratuac dirigichen da borondate gustias inpernuco penetara conformachen da eta acomodachen da bertara pena bat lez esanic medecaen (sic) Daben bacarra ipinten da ordenan bere delituequin. Bai cein da corpuz ildacuac elegidu biar baleu lecu escogiduco leuque sepultura, lecu via convenimenturaco lez ceñetara corpuz ildaco bat topau leiquian bere ordena naturalian; igual arina condenau ilda Jaungoico pecatua gaitic jaudior-taca (sic) maldecino orribliaquin marcauric pecatuco sello terribliaquin juz-

²⁷ esan (izan).

²⁸ aichen emotesen (aitzen emoten zetsen), aditzen emoten zeutsen.

²⁹ dirigiducoida (dirijidukoida), dirijiduko eida, dirijiduko omen da.

³⁰ daruana (daroiana), daramana.

³¹ proporcionana (proporzio onana), proporzio onarena.

³² arguisaren (argixaren), argiaren.

³³ juezchia (jueztzia).

gau biar baleu bere burua eta escogiera lecu bere eternidadecua, elegiduco leuque inpernua lecuric convenientiena lez beretaco eta ceñetan dauan arima bat pecatuan bere ordena eguichascuan.

Ceinda arriandibatec chino Ebanjeliuan es dau bursa ein biarric berat cergatia arrastachen bere pisuac; igual arima condenauac es dauca necesidaderic arrastan izateco inpernuetara beste fuerza a espada berbera jausten da bertara bere pecatuaren pisu astunac.

3. DE MISERICORDIA

Misericordia billa fariseo onen echera juañ san Salvadoriaren graciaren afectus. Beguira bera erator aindiu (sic) mobiduric erruquichac. Pecatararichen daco. Bera da erreguchen eta escachen dechana³⁴ pecaricheri. Convertidu ditiase³⁵, eta badago iñor ain dichosu viurchen danic Jangoicua archen dau penitenciara eta parcachen decha lucetasun baric.

Pecarichac³⁶ artu ebanetic asmua viurcheco eta converticheco eta converticheco Jauna. Jaunac etortenda urrinetic³⁷. ¡Ah! cenbat aldendu dan pecataricha Jaunagandic. Baiña aldenduarren pecatari au urrin Jangoicotic, Jaunac dauca beti precente pecataricha. Corrichen dau errecibichera preveniduric bere graciarequin; consolachen dau eta jasochen dau bere lelengo estaduda parcaturic bere gaistaquericha pasautacuan. Baiña Jauna, esaten dau pecari penitente onec negarrac beguichetan eta doloria biochian dabela; ni esan nais³⁸ desonesto inpio murmuradore eta libre bat ,nic alperric galduituc sure graciac³⁹. Es da importa: nic astia gurot⁴⁰ esan saran gustia. Emon bequisu pecari convertidataco oni bere lelengo anchichia janchiric⁴¹ Jaunas bere justia, virtute eta merituquin.

2º Cer pecararicha Jangoicua sufrichen dechu Jaunac ichaitechu⁴² eta aprobechau biarran bere paciencias eta sartu ceugan, gueiñean ditusu pecatuac pecatari adulterichuac fornicacinueri murmurracuac juicio gaistueri maldecinuac gusurreri da amas ogui urte Jangoicua ichaitechula A. M. eta dago sure urrian conbertidu saituan beragana; eta estosu egiten!

Beguira esdaua ari me bat baiño ceinetic bere misericordiac suspendichen dabe bere benganchen ejecucina. ¡Ah! despreciaucoitusu⁴³, beti bere ontasuneco, pacienciaco eta aguante luceco abarastasunac⁴⁴. Esatechu⁴⁵ San Pauloc cergatic Jangoicua ichaitechun penit.ra (sic) cecula es dosu eguingo: Alcontº (Eida ontasunan obligari beasaitua es lucachera?: Orraitioc bera seure biocheco gogortasun eta penitensiaro eragaitic, bachendosu coleraco deposito bat juicio egoñ asarreraco. Bai pecataricha ceure biocheco gogota-

³⁴ escachen dechana (eskatzen detsana), eskatzen deutsana.

³⁵ ditiase (deitiazela).

³⁶ Pecarichac (Pekarixak), Pekarariak.

³⁷ urrinetic (urriñetik), urrutitik.

³⁸ ni esan nais (ni izan naiz).

³⁹ galduituc sure graciac (galdu ditut zure graziak).

⁴⁰ gurot esan saran (gura dot izan zaran).

⁴¹ janchichia janchiric (jantzitzia jantzirik), jantzia jantzirik.

⁴² ichaitechu (itxaitetsu), itxaitzen deutsu.

⁴³ despreciaucoitusu (despreziatuko dituzu), despreziatuko dituzu.

⁴⁴ abarastasunac (abarastasunak).

⁴⁵ esatechu (esatetsu), esaten deutsu.

sunagaitic juntachendosu dabena. Eguichas be gogortasun dago igualic guison arena cein bienachen (sic) estan J.^o penitanciara ichaiten dechanaren ontasun eta dulduriac. Pecataria Bacarric bere mal eta galchian causia. Jaunac eguin dau eguin bieban⁴⁶ gustia bere salbacinuagaitic; emodau⁴⁷ gracia esau-checo eracuchi echan distinguichen ona charragandic amenau eban bera justiaco gogotasunagas obligau cein convertichera. Bai Bada Pecataricha irauten bosu⁴⁸ gogortasunian esin seugana bota culparic besteri ceure baiñuari-baiño. Aprobechau saite se Jangoicuaren misericordiagas ichaiten sure penitenciara. Precisia negar eguitea falta jachuen egunetan tardau dosulaco ainbeste dempora convertichea Jauna. Precisia da sarturic esanera bieci bateratu esaitian amirau derisun Jangoicoaren misericordiac sugatic ein ebana; glorificau deisun bere izen Santua, arguitu ebalaco bere ondasun amaibacua⁴⁹ ceugana etararic⁵⁰ pecatuac ondar anaibacuagandic. Enchun dosue ceandicho dan Jangoico misericordia pecatarichen daco; es ichu desconfichan cecula beragas descalabrau ezan arren ceure bicichia, es eisue desesperau ceuen salvacinuas; bada Jaunaren ontasunac gueichago eguiteche guitacha guizonen malecia gustiari. Bada esisue⁵¹ gaisqui usau bera cergatic Profetiac dirauen Jaunaren misericordia dala bildulchen jacosenen daco eta es despreciachen dabenedaco. Berac ichaitechu penitenciara convidachen sailu diar eguitechu erreccbichen sailu parcachechu esan saiteste sucenac, justuac ichaizu Jaunaren misericordia; Baiña irauneguisue coronauac esan saichasen bere doiegan pagauric ceun⁵² merituac.

Pecatarichac ichaizu Jaungoicuaren misericordian baiña eguisu penitencia. Ichaitia penitencia eguin baric da librien vanidadia. Bada eguitia penitencia eta ichaitia da pecatari eguisas convertidutacuan consuelua ceinchuc aprobechatacuan mundu onetan Jaunaren misericordias alabauco dabe eta bendeciduco dabe eternidate bestian.

Amen.

LABURPENA

Frantzisko Arrate Mandiola eibartar apaizaren sermoietarik hiru, 1861-1869 urteen bitartean idatziak, gaitzat hartzen dira. Eibarren egiten den bizkaierazko euskalkian daude. Aginaga auzoko San Migel Arkanjeluaeren parrokiako artxibategian aurkituak dira. Orain Euskaltzaindiko artxibategian daude. Testuan ematen diren lehen argitasunak hiriaren Iparraldera Artibai hegalean aurkitzen den auzo horren kokapenari buruzkoak dira, ondotik sermoiei buruz ihardutzeko. Eibarren ahoskeraz oraindik erabiltzen den euskalki erarekin bat datoz.

Predikuaren gaiak honako hauek dira: Luxuria edo haragikeria, Joangoia gaiztuak kaztigu eternuetara eta Misericordiaz. Guzion argibiderako oharrez azalduaz, zeren egileak gaztelarazko ortografiaz idatzi zituenenez transkribatze zuzenean egiten da, baina oharrok Euskaltzaindiaren gomendiozko grafian jarriaz, hobeto irakurri ahal izateko eta aldi berean euskal filologiarako zerbitzeko eran.

⁴⁶ bieban (biar eban), behar zuen.

⁴⁷ emodau (emon dau), eman du.

⁴⁸ bosu (bozu), badozu.

⁴⁹ amaibacoa (amaibakoa), amaierarik bakoa, amaierarik gabea.

⁵⁰ atararic (atararik), aterarik.

⁵¹ esisue (ez zaizue), ez zaizute.

⁵² ceun (zeuen), zeuon.

RESUMEN

Trata sobre tres sermones del sacerdote eibarrés Francisco Arrate Mandiola, escritos entre los años 1861 y 1869, en subdialecto vizcaíno de Eibar. Fueron hallados en el archivo de la parroquia rural de San Miguel Arcángel del barrio Aguinaga de Eibar, y que actualmente se conservan en Euskaltzaindia.

Comienza con la información de las particularidades de dicha parroquia rural, ubicada al norte de la villa en la vertiente de Artibay, para proseguir la descripción de los sermones que están escritos a la manera eibarresa que concuerdan con la forma del euskara oral que perdura en dicha villa de Eibar.

Los temas tratados vienen a ser: De lujuria, Irán los malos a los castigos eternos y De misericordia. Todos ellos van acompañados con notas aclaratorias con la ortografía moderna según aconseja la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, para la mejor interpretación de los mismos y que han de servir a la filología vasca.

RÉSUMÉ

Il traite des sermons du curé d'Eibar Francisco Arrate Mandiola, écrits entre 1861 et 1860, en sous dialecte biscayen d'Eibar. Ils furent trouvés dans les archives de la paroisse rurale de San Miguel Arcángel du quartier Aguinaga d'Eibar, et sont actuellement conservés à Euskaltzaindia.

Il commence par l'information des particularités de la dite paroisse rurale, située au Nord de la localité sur le versant d'Artibay, et continue par la description des sermons qui sont écrits à la manière d'Eibar et concordent avec la forme de l'euskara oral qui perdure dans la dite ville d'Eibar.

Les thèmes traités parlent: De luxure, Les méchants iront vers les châtements éternels et De miséricorde. Tous sont accompagnés de notes explicatives avec l'orthographe moderne comme le conseille la Royale Académie de la Langue Basque-Euskaltzaindia, pour une meilleure interprétation de ces textes qui ont servi à la philologie basque.

ABSTRACT

A study of the sermons of the Eibar priest Francisco Arrate Mandiola written between 1861 and 1869 in the Bizcayan Eibar sub-dialect. These sermons were found in an archive at the rural parish of San Miguel Arcángel in the Eibar district of Aguinaga and are now kept in Euskaltzaindia.

The study starts out with information about the peculiarities of this rural parish to the north of the village, on the slopes of Artibay. It then goes on to describe the sermons, which are written in the Eibar-style Euskara still spoken there today.

The subjects dealt with are: "Of lechery", "Eternal punishment awaits the evil" and "Of Mercy". Each comes with notes with modern spellings as recommended by the Royal Academy of the Basque Language-Euskaltzaindia as a means to interpret them better and enrich Basque philology.